



## JARRAIBIDEAK

### Unitate Funtzionala – KARDIOLOGIA

#### Dei egiteko beharrea bazaude, erabili gelako txirrina

#### GUREAN ZAUDEN BITARTEAN JARRAITU BEHARREKO ARAU OROKORRAK

- Garbiketerako, gelan bertan komuna duzu, eta dutxa unitatean.
- Hemen zauden bitartean, egun osoan egindako txiza jaso behar duzu. Horretarako, zure ohearen letra bera duen ontzia erabili behar duzu. Ontzi hori bainugelan dago.
- Gelan txirrina ere baduzu. Laguntza behar duzun guztietan, deitu. Horrela, lana erraztuko diguzu, erizaintzako kontrolera ateraz gero baliteke-eta gure lana oztopatzea.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurdunak edo lur gabeak.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.
- 9:00etatik 13:00etara laguntzaileek unitatetik kanpo irten behar izango dute. Beharrezkoa izanez gero, paziente bakoitzeko pertsona bat egon daiteke. Debekatuta dago unitateko korredoretan geratzea.

#### MEDIKUAREN BISITA / FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA



- Egunero, igandeetan izan ezik.
- 10etatik 12:30era gutxi gorabehera.
- Medikua bisita egitera datorrenean, familiartekoak eta lagunak korridorera irtengo dira. Medikua, gelatik irteten denean, gaixotasunaren eboluzioaren berri emango die.

#### OTORDUAK

#### BISITAK



9:15ean Gosaria  
13:15ean Bazkaria  
17:15ean Merienda  
20:15ean Afaria

- 14:00etatik 21:00etara.
- **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.** Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke

#### BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitalean sartu izanaren **egiaztagiria** behe solairuko harreran emango dizute (datu gehiago behar baduzu, jar zaitetz harremanetan pazientearen ardura duen medikuarekin).



#### **TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000**

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.

**Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.**



**Telebista-zerbitzua** ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora.

Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.



#### **KAFETEGIA Ordutegia: 8:00etatik 22:00etara.**

Kafetegia erdisotoan dago.

Solairu batzuetan kafe eta freskagarri makinak daude, igogailuak dauden hallean.



**OSPITALEKO ALTA:** Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri. Komenigarria da alta egunean senideren batekin izatea.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.



#### **Laguntza erlijiosa eta espiritual:**

- Ospitaleak zerbitzu erlijioso katolikoa du Kapean (1. solairuan). Erlijio-laguntzako ordutegi berria 9etatik 17etara izango da egunero.
- Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaizkete euren arimako maisuari.

**PAZIENTEAREN ZAKO ETA ERABILTZAILAREN ZAKO ARRETA ZERBITZUA (PEAZ).** Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. **Ordutegia:** 9:00etatik 14:30era (astelehenetik ostegunera).